




■ ASTIGARRAGA-HERNANI PELOTA

Domina banarekin bueltatuko dira, Pauetik

Ez dira esku hutsik bueltatuko, Urumea bailarako bi ordezkariak, trinketeko Munduko Kopatik: brontzea lortu zuen Irazustabarrenak atzo, eta finala jokatu du Gurutzealde gaur.

TXAPELKETA ederra borobildu, eta domina banarekin bueltatuko dira Pauetik, trinketeko Munduko Kopatik, Urumea bailarako bi ordezkariak: brontzekoa kolokatu zuen Amaia Irazustabarrena hernaniarrak atzo, Argentinari azkeneko tantoan irabazita; eta finala jokatu du Oier Gurutzealde astigarrak gaur, goizeko 11:30etan hasita, Frantziaren kontra. Urrezkoa bilatuko du. /13

■ ORDU ALDAKETA



03:00 → 02:00

■ Hiruretan, ordubiak

Udazkenean sartuta, ordua aldatzeko garai iritsi da. Gaur gauean ordubete atzeratu behar dira ordulariak; 03:00etan, 02:00ak izango dira. ||

■ EREÑOTZU

Zumaiako Flyscha ezagutzera, gaur

Lizarran izan zen aurreko aste-buruan, ereñotzuar talde bat, Udazken Kultureleko ekintzen barruan. Eta gaurkoan, Zumaia-ra joateko jarri dute hitzordua, Flyscha ezagutzera. /12

■ GOIZUETA

Umorea izanen da protagonista, gaur

Bakean dagoena, bakean utzi emanaldia eskainiko dute gaur, 19:00etan Goizuetako eskolako jangelan, Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenak. Umorezko bakarrizketak izanen dira. /11

■ GAUR KRONIKAN

Hernani /6-8

Argiak 100 urte, 'Hilerokoa', Hernani Erabaki, Kaleko...

Astigarraga /9-10

Harituz elkarte, antzerkia, Elkarbizi, odol emaileak...

Goizueta /11-12

Garagardo Festa, Umore Ona abesbatza, 65etik gorakoak...

Arano /11-12**Ereñotzu /11-12****Kirolak /13-15**

Errugbia, futbola, kirol tabla...

Gau Beltzari, kolorea

Txantxillako arima bihurriena zintzilik dantzan agertu zenean hasi ziren atzo, festak. /8



Islandia (Itzas bidaia) Norvegiako Fiordoak (Itzas bidaia) Errusia

Zetaren bidea (Uzbekistan) BIDAIAK TALDEAN DENBORALDI AURRERAPENA Eslovenia & Istria

NOAOA Lasarte-Oriatik irteerak, NOAOAk gidatuta
Hipodromo Etorbidea, 10. Lasarte-Oria info@noaoa.eus 943 37 36 13

K ATZA

Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
ikatzatberna@gmail.com

Latxe
Urumeako ur-ttikitan barrera

13. alea kalean!

latxe@kronika.eus 943 33 08 99

■ HERNANI AMHER ELKARTEA

15 urte, «eskuin muturraren txertoa» izaten

2004 urtean sortu zen Amher, Hernaniko Elkarte Multikulturala, Hernaniko Udalak antolatutako hitzaldi baten ondoren. Aurten bete ditu 15 urte, eta sorreratik gaur arte, izugarrizko eboluzioa izan dela diote elkarteko kideek. Horren adibide da, elkarteak praktikak egiteko zentro bihurtu izana.

DENBORA dezente pasa da AMHER elkarte multikulturala sortu zenetik, eta badirudi inor ez dela elkartearen hasierako urratsez gogoratzen. Lehenengo bileran 2003 urte amaieran izan zen, Hernaniko Udalak antolatutako hitzaldi baten ostean, baina, dena den, 2004an legez-tatu zen elkarteak, legeak agintutako estatutu guztiak betez, eta hori da elkartearen sorreratzat ezagutzen den data, duela 15 urtekoa.

Hernaniko Udalak Biteri Kultur etxean antolatutako hitzaldi batetik sortu zen AMHER, Victoria Mendoza soziologoaren hitzaldia amaitu zenean bertaratutako lau pertsona elkarte eta lanari ekiteko unea zela iruditu zitzaizkion. «Lau boluntariok iritzi bera genuen: etorkinak artatu, haien beharrak asetzen saiatu, ahal den neurrian lagundu eta gaitzetzeko herritar guztiak kontzientziatzea zen gu lauen nahia», adierazi du elkartearen sortzaileetako bat izan zen Felix Etxeberriak.

Hasiara batean lau pertsonak osatzen zuten taldea, ideia askorik gabe, lokalik gabe eta zehazki nora jo behar zuten ere jakin gabe. Bi astetik behin elkartzeko hasi ziren, lehenengo Biterin eta gero Iturritxon, baina bilerak egiteko toki baten eskean denbora luzez aritu ondoren, Udalak lehenengo lokala eman zien Gay Murren.

Gaur egun pare bat aldiz elkartzeko da hilabetean 20-25 pertsonako lantaldea, elkarteak Latsunben duen lokalean, nahiz eta datorren urterako lokal aldaketa aurreikusten duten.

«Gertutasun sentimendua dago, nolabaiteko ekarpena egiten ari zarela sentitzen duzu; eskuin muturraren txertoa gara»

Gertukoa

eta aberasgarria

AMHER elkarteak hitzarmen bat du Hernaniko Udalarekin,



Elkarteak sortu zenean 4 bolondres ziren arren, gaur egun AMHER elkarteko lantaldea 20-25 pertsonak osatzen dute.

eta hortik lortzen du finantzazioaren zati handi bat. Udalaren babes osoa du elkarteak, nahiz eta autonomoki lan egiten duen, eta hortaz elkarteak «udalerriarentzat beharrezko besoa» dela diote AMHEREko kideek.

Oso zerbitzu aberasgarria eskaintzen dutela diote, etorkinei instituzioek eman ezin dakieken berotasuna eskaintzen dietelako, eta hasieratik gertutasuna transmititu nahi izan dutelako: «etortzen den edonori oso gertukoa den tratu ematen diogu, gure helburua konfiantza transmititzea baita, eta gizatasuna erakustea. Gure ustez, hori da harrekar horren eraginkorren izateko bidea. Gainera, zorionez, gugana datozen pertsona guztiei mezua hori ondo iristen zaiela esango nuke», adierazi du Fatima Fernandez AMHEREko kideak.

15 urteek elkarte gizatiarragoa bihurtu dute AMHER

Harrotasuna eta asebetetzea

«Sortzaile moduan sentitzen dudana izugarria da, harrotasuna eta asebetetzea sentitzen dut gehienbat», dio Felix Etxeberriak 15 urteren buruan egindako lanak emandako fruituak ikustean.

Herriarentzat onuragarria den zerbitzetan bere burua murgilduta sentitzeak asebetetzen du Etxeberria, norbaiti mesedegarria izango zaion zerbitzetan aritzea, alegia: «gertutasun sentimendua ere badago, nolabaiteko ekarpena egiten ari zarela sentitzen du-

zu, ahal duzun neurrian laguntzen zabilzala eta eskuin muturrari aurre egiten gabiltzala; eskuin muturraren txertoa gara».

Oso talde kohesionatua osatzea lortu dutela dio, dibertsitatearekiko errespetu osoz lan egiteko prest dagoen talde bat, eta 15 urtetan eztabaidarako gairik izan ez duen taldea. «Hazkunde haundia izan dugu, gure mugak zeintzuk diren kontuan hartuta. Gora-beherak ditugula ere aitortu beharra dago, ez garelako bolondres gehiegi».

Ixiar Egigurenek, duela urte askotatik elkarteko kidea denak adierazi du, arazo askori konponbidea eman ezin izatea oso gogorra dela eta frustrazio sentimendua areagotzen duela elkarteko kideen artean, baina 'gauza txikiak' eginez laguntza hori bideratu dezaketela (etxebizitzaren kontua, erroldarena...)

eta AMHEREk 'bultzadaxoa' ematen duela.

15 urtez, helburu berak

Elkarteak sortu zenetik, perfila ez da batere aldatu, guztiz kontrako gertatu dela diote AMHEREko kideek. Hasieran finkatutako oinarri eta helburu berak mantendu dira, baina 15 urte hauek elkarte gizatiarrago batean bihurtu dutela diote, askoz profesionalagoa den elkarte bat da orain AMHER. Kide guztiak kualifikatuagoak daudela diote, eta gaien inguruko prestakuntza duten jendea dagoela lanean, duela 15 urte baina bokazio gehiago duen jendea dagoela. Horretarako, herriarentzat onuragarria den zerbitzu bat ematen ari direla sinestea ezinbestekoa dela dio Felix Etxeberriak.

Elkarte multikulturalaren bi funtsak betidanik berdina

izan dira; sentsibilizazioa eta laguntza eskaintzea, hedatu direnak helburu horiek lortzeko mekanismoak izan dira. Sentsibilizazioaren barruan etorkinak eta bertako herritarrak batzen dituzte, kontzientzia sustatzeko helburuarekin, elkarbizitza sanoago baten aldeko apustua eginez.

Aldaketa nabaria, harreretan Funtsean elkartean aldaketa haundirik egon ez den arren, funtzionamenduan eta kalitatean asko hobetu duela esan daiteke. Harreretan nabari da hori gehien, duela 15 urtekoak gogora ekarrita, gaur egungo harrerak pentsaezinak ziren. «Hasieran gure laguntza eskaintzeko mezuak horrelakoak ziren: *arazorik baduzu, deitu telefono zenbaki honetara*, baina gaur egun dena askoz sofistikatuagoa eta profesionalagoa da, eskerrak», dio Etxeberriak barre artean.

Gaur egun protokolo bat dago Udaletik bideratzen dena eta hortan eskuduntza handia du AMHER elkarteak. Harrera baterako, normalean, aurrez zita bat eskatzen da eta hitzordu horretan infusioa edo ur baso bat eskaintzen zaio elkartera laguntza eske joan denari. Harrera batean ematen den lehenengo urratsa galdeketa hastea izaten da, «jakin-min morbosorik gabeko galdeketa», argitu nahi izan du Fernandezek, eta horrela, zertan lagun dezaketean ezagutzen dutela azaldu du.

Harrera eguna ere antolatzen dute, iritsi berri direnei ongi-etorria modu globalago batean emateko. Hasieran, solasaldi informatibo bat eskaintzen da elkartearen nondik norakoak ezagutu ditzaten eta Hernaniko Udalaren zerbitzuen inguruan jakin dezaten. Honen ondoren, Kaxkora bisita egiten da herriko puntu garrantzitsuenak ezagutu ditzaten (anbulategia, kultur etxea, herriko plaza...).

Oihartzuna edonon

Elkartearen lorpen haundietako bat ezagunak egin izana da. Herri mailan ia herritar guztiek dute AMHERen berri, denek entzun dute noizbait elkartearen inguruko zerbaitea edonork daki arazo baten aurrean elkartera jotzeko askatasun osoa duela. Elkarteko kideek diotenez, denek ezagutzen dute AMHERen dabilen norbait.

«Urte guzti hauetan ahoz ahokoak eragin handia izan du eta horri esker, Hernanikoak ez diren etorkin askok ezagutzen dute elkartea», adierazi

du Tomas Elorza kideak. Orokorrean, Buruntzaldea osoko etorkinak hurbiltzen dira AMHERera eta herriko ekitaldi askotan parte hartzen dute; Jai Gastronómicoan, Bizilagunak ekimenean eta Imigrazinean besteak beste.

Informazioaren transmisio horren garrantzia azpimarratu nahi izan du Fernandezek: «Normalean etorkinak oso aldakorrak dira, ez dutelako inolako egonkortasunik; lanpostua aldatzen badute askotan udalerrria ere aldatuko dute, batzuk hemen egiten dute lo, eta beste herri batean jan, baina badakite Hernanin badagoela Elkarte Multikultural bat, eta badakite laguntza eske etorri daitezkeela gurera, hori oso pozgarria da gu guztiontzat».

Emakumeen Taldea, irekiagoa Isabel Otxoa abokatuaren hitzaldi bat entzun ondoren, etxeko langileak ziren emakumeekin lanketa egiteko sortu zen taldea. Lehenengo bilerak hitzaldi horren ondoren antolatatu zituzten, eta hortik aurrera hilean behin elkartzen dira, hilabeteko lehenengo larunbatean.

Denborak aurrera egin ahala, taldea zabaltzen joan da eta gaur egun etxeko langileak ez diren emakumeak ere badira taldean. Herrialde ezberdinetatik etorritako emakumeak

Ikasketa praktikoak burutzeko 10 eskaera aurten.

dira eta bilera batzuetan sei bat emakume biltzera heldu diren arren, normalean 20 inguru elkartzen dira.

Emakumeen Taldea elkartearen sektore garrantzitsuenetako bat da, gazte mugimenduekin batera. Oso modu aktiboan jarduten dute eta interes ezberdinetako solasaldiak antolatzenaz gain, laguntza eta konpainia ere eskaintzen dute.

Generoaren ikuspegia sakan lantzen dute; Martxoak 8an emakumeen genero indarkeriaren aurka manifestatzera joaten dira eta baita etxeko langileen egunean ere, haien eskubideen alde egiteko. Bestelako formakuntzak ere eskaintzen dituzte eta orokorrean taldearen barruko parte-hartze maila oso altua dela esan daiteke.

Mahai gainean jarri duten beste gaia titulazioen homologazioaren arazoa da. Ge-



Bizilagunak ekimena oihartzun handiko ekitaldia izaten da urtero, Gazte Bizilagunak edizioarekin batera.



Jai Gastronómikora eramaten diren errezeta gehienak AMHER-eko Emakume Taldeak egindakoak izaten dira.

hienetan, hemen etxeko langile moduan dauden aritzen etorkinek beren herrialdeetan ez lukete ogibide bera izango, bestelako lan batzuetan arituko ziren ziurrenik hona etorri aurretik, baina hemen ezin izan dute lanbide horretan jarraitu, beren titulazioen homologazio eta baliozkotze arazoak medio. Beste herrialdeetan baliozkotzat diren ikasketa askok hemen ez dute inolako baliorik.

Gainera, AMHER elkarteak antolatzen dituen ia ekintza guztietan ere izaten dira, Jai Gastronómikora esate baterako beren errezetak eramaten dituzte.

Bizilagunak proiektuan ere, Emakumeen Taldeko lagun multzo batek parte hartzen du, koadrila moduan aurkeztuta.

Gazteriarekin lanean

Ixiar Eigurenek dioenez, gazteekin oraindik lan handia dago egiteko baina elkartearentzat «oxigenozko baloi handi bat» da herriko gazteria, AMHER elkartearentzat emakumeen

sektorea bezain garrantzitsua baita.

Etorkin gazteentzat bertakotzea oso zaila izaten da, baina Gazte Bizilagunak bezalako gazte giroek asko laguntzen dute horretan.

Fatima Fernandezek dio etorkizun batean Hernaniko Gazte Olinpiadetan etorkin hauen parte hartzea sustatzea ideia bikaina izango litzatekeela baina horretarako, oraindik gazteriarekin lan handia dagoela egiteko. «Gazte etorkinek herrian ez dute inolako erreferentziarik, eta hortaz, kosta egiten zaie herriko gazteriarekin nahastea. Haurren kasuan, normalean ikastolatan integratzen dira eta hortaz, lanaren zati handi bat egina dago, nahiz eta prozesuaren beste zatia askotan pendiente geratzen den» azaldu du Fernandezek.

Praktikak egiteko zentro

Hasiera batean ahulenari laguntzeko soilik sortu zen elkartea; gaur egun praktikak egiteko zentro bihurtu da. Elkartek 15

urte hauetan emandako aurrerapausu haundienetarikoa bat dela esan daiteke, belaunaldi berriei ateak zabaltzeko aukera bikaina baita.

Gizarte Hezkuntzako ikasleak dira AMHERen ikasketa praktikoak burutzeko aukera dutenak. Aurten hamar praktika eskaera jaso ditu elkartek eta erdia besterik ezin izan dute onartu, guztiak artatzeko aukerarik izan ez dutelako.

Hurrengo urtebetetzerako erronka

Elkarteko kideek adierazi dutenez, etorkinek esparru guztietan parte hartzea gustatuko litzateke. Antolatutako ekitaldi guztietan etorkin asko inplikatzeko dira, baina elkartek esparru guztietan kontatu nahi du haiekin, bileretara hurbil daitezkeen nahi du AMHERek.

Erabakiak hartzeko batzarretan haien falta somatzen dute, eta elkartearen etorkizunerako funtsezko helburua haien ahotsa entzun ahal izatea da. ||

URUMEA LANEAN

2019-X-26 larunbata

Udazkenarekin ere hotza helduko da, eta berogailua prestatu behar da

Tenperaturetan jaitsiera nabarmena izan da eta berogailua geldirik egon eta gero ezustekoak sahiesteko gomendioak jarraitu behar dira.

Udazkenaren etorrera saihestezina da, eta harekin batera temperatura jaitsierak iristen dira. Berogailua geldirik egon da udako hilabeteetan, eta, berriro martxan jarri aurretik, azken orduko ezustekoak saihestuko dizkizuten urrats xume horiei jarraitzea gomendatzen dizugu.

Kendu kaldera eta jarri negurako moduan

Ziurtatu kaldera piztuta dagoela, baldin eta beroko hilabeteetan gelditu bada, ez gastatzeko. Kaldera ur beroa sortzen duen bera bada, ziurtatu negurako moduan dagoela (normalean erradiadore baten marrazkia-ekin adierazten da).

Zirkuituaren presioa egiaztatzea

Berogailuak behar bezala funtziona dezan, 1,5 bar-eko presioan egon behar du. Kalderek balio hori markatzen duen manometroa dute. Azpitik badago, zirkuitua betetzeko giltza ireki beharko duzu, berriro iritsi arte. Betetze-giltzaren kopena ezagutzen ez baduzu, kalderaren eskuliburuan kontsulta dezakezu; gas-kalderetan beheko aldean egon ohi da, gainerako konexioekin.

Oharra: ez luzatu inoiz presioa 2 bar-etik gora, eta gogoratu beti itxita utzi behar duzula betetzeko giltza.

Garrantzitsua da erradiadoreek ur zirkulazio librea dutela egiaztatzea

Erradiadoreen giltzak egiaztatzea

Garrantzitsua da erradiadoreek ur zirkulazio librea dutela egiaztatzea. Guztien edo erradiadore jakin baten giltzak itxi badira, berogailua martxan jarri aurretik ireki egin behar dira, behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzeko.

Erradiadoreak purgatu

Normala da udan aire arteko zirkuituan ibiltzea, eta beharrezkoa da dena ateratzea. Aire modu desberdinean konprimatu eta ura baino lehenago berotzen denez, zirkuitua ez da behar den bezala berotuko, ateratzen ez bada, eta, gainera, zarata gogaikarriak eragingo ditu.

Berogailuak purgatzeko, lau puntako destornilladore bat eta edalontzi bat beharko dituzu. 1,5 bar-eko zirkuituaren presioarekin, jo lehenengo erradiadorera eta ireki purgagailua bihurkinarekin. Jarri edalontzia azpian, uraren erorketa jasotzeko.

Txorrota tarteka ateratzen

bada, zirkuituan airea dagoela da. Irekita eduki purgadorea, harik eta ur-txorrota etengabea den arte; eta horrela hurrenez hurren, etxeko berogailu guztiekin.

Zirkuituaren presioa berriro begiratu behar da kalderaren manometroan, eta bar batetik jaisten bada, berriz ere presioa ematen dio. Instalazio guztia garbitu ondoren, utzi berriro zirkuitua 1,5 bar-era.

Termostatoa egiaztatzea

Termostatoa da kaldera piztu eta gelditzeko agindua ematen duena, eta, beraz, behar bezala funtzionatzen duela ziurtatu behar da. Egiaztapena egiteko, giroko tenperaturaren gainetik igo tenperatura, eta begira ea kaldera pizten den. Gero jaitsi eta egiaztatu kaldera gelditzen dela.

Orain berogailua prest daukazu hotza iristeko. Gogorazi behar da beharrezkoa dela gas-kalderak urtean behin berrikustea, behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko.

Horrela, gure ordutegiengatik, ordu batzuetan besteetan baino gutxiago ordaintzea interesatzen bazaigu, gehien egokitzen den aukera bilatu beharko dugu, modalitate estandar bat kontratatu beharrean. Tarifa elektriko efizienteekin, asko aurreztu daiteke, hilabetearen amaieran.

Berogailuak prestatu behar dira negurako.



ITUROLATARROK



Aldapan gora ere elkarrekin
Idoia Telleria Maritxalar

Aukera berria!

Ikasketak amaitu bezain laster hasi nintzen administrari lanetan enpresa batean eta bertan hamazazpi urte eman nituen.

Aitzitik, ustez lan egonkorra eta "jubilatutako" zen hartatik, gero etorriko ziren urte nahasi eta krisiaren ondorioz, egun batetik bestera kaleratu ninduten eta langabezian geratu nintzen. Berriro hutsetik hasi behar. Garai horretan hainbat galderei erantzutea zaila egiten zitzaidan; orain zer egin? Nora joan? Ikasten hasi?...

rekin, azkenean nire enpresa sortu nuen. Ibilbide berri hura hasterekin batera Iturola elkarlan sorgunea ezagutu nuen, ezinbestekoa izan dena nire proiektuaren garapenean.

Bertan, ni bezala, bai bakarka, bai taldean, proiektu desberdinetan lanean ari zen jendea topatu nuen. Baina Iturola proiektu berriak sortu eta lantzeko toki bat izan ezezik, elkar ezagutu, ezagutza partekatu eta sarean lan egiteko baliabideak eskaintzen dizkigun esparrua ere bada. Iturola egiazko alternatiba da, guttion eskura dagoena.

Mirari Legarreta
Enpresa kudeaketa

Hernaniko Elkarlan Sorgunea
Iturola.eus
Florida Auzoa, 28 - 20120 Hernani

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

TALLERES MITXELENAK
BABESTUTAKO ATALA
Ezlago Poligonoa, 21
Zikuiaga Auzoa, Hernani
www.talleresmitxelena.eus

termas

ZURE BAINERA DUTXARENGATIK ALDATUKO DUGU

BAINUGELAK SUKALDEAK BEROKUNTZA ERREFORMA OSOAK

KARMELO LABAKA KALEA 10
20120 HERNANI

943 330 782
486 411 511

www.termasdecoracion.com

WEB BERRIA!

Hernaniko bakailao pintxo onenak

Txilibita taberna, Txoko Kafe-Bar eta Aralar tabernako pintxoak izan dira, hurrenez hurren, VIII. Bakailao Asteko pintxo lehiaketako irabazleak. Parte hartu duten 26 pintxo

artean, eta herritarren epai zorrotzaren arabera, Txilibitako Ezpelet da onena, Txoko-ko Itsasmendi bigarrena eta Aralarko Brandkailua hirugarrena.

Lehiaketaren bueltan Errioguarda jatetxean otordu bat ere zozketatu zen epaia eman duten herritarren artean, eta Astigarragako Iñaki Ortega izan da irabazlea. **II**

Txili taberna

Zapa Kalea 2, Hernani
943 55 10 06



Josune Txiliko barra atzean, Ezpelet pintxo eskuan duela.

Hernaniko Zapa kaleko Txilibita taberna nagusitu da 2019 honetako Bakailao asteko pintxo lehiaketan, Ezpelet izeneko bakailao pintxoarekin. Pintxoaren sekretuetako bat izan daiteke Ezpeleto piperrautsa eta pikua darumala.

Dena den, Txilibita tabernakok ondo baino hobeto dakite zer den Bakailao Asteko txapeldun izatea, aurtengo ez baita lehengo aldia txapela lortzen dutena, hirugarrena baizik.

Etxeko sukaldaritza, oinarri

Etxean bertan ondo landutako pintxo aukera zabala eskaintzen du Josunek eta bere taldeak egunero tabernako barra gainean, baina aurtengo Ezpelet pintxoak izan duen arrakasta haundia iku-

sita, Zapa kaleko taberna honek eguneroko eskaintzaren barruan dauka aukeran. 2014 urtean txapela lortu arazi zien bakailao pintxo bezala; sortu zutenetik bost urte pasa badira ere, oraindik arrakasta mantentzen du, jende askok eskatzen du eta.

Esker oneko hitzak

Josunek eta bere taldeak benetan eskertu nahi ditu aurtengo beraien etxera gerturatutako guztiak eta batez ere, beraien aldeko botoa eman dutenak. Gustora azaldu dira Txilin ibilitako jendetza ikusita.



Txoko Kafe-Bar

Andre kale 68, Hernani
943 50 62 23



Mila eta Ibai ama-semeen taldeak bigarren postua lortu du.

Bakailao pintxo goxoenen arteko lehiaketan aurtengo podiuma lortu du Txoko Kafe-Barrek. Hirugarren urtea du jarrain hiru onenen artean dagoela Txoko Kafe-Bar, eta hori, tabernak bost urteko ibilbidea baino ez duenik!

VIII. Bakailao Asteko pintxo lehiaketan Itsasmendi izeneko pintxoarekin hartu du parte Mila eta Ibai ama-semeen taldeak, eta bigarren postua eraman dute etxera.

Garaiko produktuak nagusi

Hernaniko Bakailao Astea udazkenean sartzearekin batera ospatzen da, eta Txoko Kafe-Barrek keinu bat egin nahi izan dio urtaro berriari, garaian garaiko produktuak nagusituz; ondoak. Dena den, arrautz zuringo flanbe-


atua eta arrosa lore-hostoak ere baditu Itsasmendi pintxo zaporetzuak.

Oraindik ere probatzeko aukera

Txoko Kafe-Bar eskaintzen duen patata tortila ospetsuengatik ezaguna bada ere, aurtengo VIII Ba-

kailao Astea bukatuta ere, Itsasmendi bakailao pintxoaz gozatze-ko aukera luzatuko du Andre kaleko tabernak.

Pozik daude Txokon hartu duen martxarengatik eta Bakailao Astearen ez ezik, urte osoan zehar herriaren harrerengatik.



Aralar taberna

Zapa Kalea 4, Hernani
943 33 15 06



Arantxak eta konpainiak hirugarren egin dute Brandkailuarekin.

Denbora luzez tabernako sukalde itxita eduki badute ere, indarrean jarriko dituzte pertzak eta eltzeak berriro ere sutan Aralar tabernakok. Erakutsi baitute bakailaoa ondo baino hobeto lantzen dutela bertan. Izan ere, bukatu berri den VIII. Bakailao asteen hirugarren postua lortu du Aralar tabernak Brandkailua izeneko pintxo bereziarekin. Argi utzi dute, beraz, sukaldari gabe egon badira ere, ez zaiela ahaztu nola aritu behar den bertan!

Zapa kaleko 4garren zenbaki-ko taberna honen ezaugarri ezaugarriak da bertan sortzen den giro ona, eta aurtengo ere, hutsik egin gabe, VIII Bakailao Astearen eutsi diote mailari; jendetza hurbildu da Brandkailu pintxo goxoa dastatzera, batez ere,


ostegun eta ostiralean. Benetan eskertuta daude arrakastarekin eta oihartzunarekin.

Gogotsu berriz ere sukaldean aritzeko

Sukaldari gabe denbora egin badute ere, segituan izango dute

martxan berriro ere, eta Aralar tabernako taldea gogotsu dago berriro ere indarrean ekiteko beraien eguneroko normaltasunari.

Eskerrak eman nahi dizkiete Aralarren aldeko botoa eman duten herritar horiei guztiei.



■ ARGIA ALDIZKARIA ARGIAK 100 URTE

Argiaren kazetaritza ereduari buruzko saiakera kaleratu du Bereziartuak

Kazetari hernaniarrak 'Ez gara neutralak' liburua aurkeztu berri du. Argia Jendeak etxean jaso du. Azokan ere lortu daiteke.

ASTEARTEAN aurkeztu zuen Gorka Bereziartua kazetari hernaniarrak *Ez gara neutralak* liburua, Donostiako San Jeronimoko udal liburutegian. Argia aldizkariaren filosofiari buruzko saiakera da, «kazetaritza burujabe euskaldunaren aldeko aldarria».

Argiaren mendeurrenaren harira argitaratu den arren, bertako kazetari den Bereziartuak zehaztu zuen ez dela hedabidearen historiari buruzko liburua. «Gaur kazetaritza euskeraz egiten ari bagara, naufragio askotatik onik atera garelako izan da. Baina naufragioen ondoren zaila izaten da barkuak osorik berreraikitzea, ontziaren puskak ateratzen dira uraren azalera. Horregatik, liburu hau hamarkadaren ondoren azaleratutako zatien bilduma da, nolabait».

Objektibotasunik ez

Argiaren filosofiari buruzko liburua aurkeztearekin batera, kazetariak aprobeixatu zuen gogora ekartzeko berriro ere protagonismoa hartu duela kazetaritzaren funtzioari buruzko debateak, azken egunetako Kataluniako gertakarietarako. «Kazetariok gure buruari etengabe egin behar genizkiokeen galderak intentsitate handiz agerrarazi dituzte albisteek. Adibidez, nola informatzen dugun aurrez ezarrita zeuden zenbait eskema kolokan



Gorka Bereziartua hernaniarrak idatzi du Argiaren 'Ez gara neutralak'.

ikusten ditugunean. Edo nondik informatzen dugun, barrikadaren alde batetik ala bestetik. Zein hitzekin definitzen dugun erralitatea. Zer erakustea erabakitzen dugun eta zer ez».

Bereziartuak azpimarratzen du erabaki horiek ez direla neutralak, kazetaritza ezin dela neutrala izan, ezta objektiboa ere. Baina enpresa haundiek sustatutako hedabideak 'objektibatzaile' izaten saiatzen direla. «Beren burua aurkezten dute egiaren kontakari bakarrak balira bezala, gizarte guztiak onartu behar duela dirudien errealitate bat eraikiz; Argiak, ez dauka hori egiteko asmorik».

Burujabetzaren garrantzia

Informazioa modu askean emateko, komunikabidearen jabetza edukitzea garrantzitsua dela ere azpimarratu zuen. «Argiako kide bakoitzak hedabidearen eguneroko erabakietan eta hautu estrategikoetan zuzenean parte hartzen du, eta medioaren jabetzaren parte bat ere berarena da».

Dagoeneko, eskura

Argia aldizkaria etxean jasotzen dutenek dagoeneko badute *Ez gara neutralak* liburua. Argia Jendea komunitatea osatzen ez dutenek, Argiaren webguneko Azoka atalean lortu dezakete, 14 euroan: www.argia.eus. ■

■ KONTRAKANTXA

Berriro eskura, 'Hilerokoa'

Kontrakantxa Gaztetxean antolatu diren ekintzen kronikak jaso eta datozen ekitaldien berri ematea du helburu, *Hilerokoa* argitalpenak. Horrez gain, bestelako gaiak ere lantzen dituzte, atal desberdinetan: *Kontrakantxak dio*, *Poesia gaztetxeroa*, *Sakontzen...* Udara tarteko, hilero argitaratzea zaila egin bazaie ere, kaleratu dute bigarren alea, eta Gaztetxean eta tabernetan dago eskura. Kronikaren diseinua errepikatatu badute ere, «independentek izateko» erabakiari eutsi diote. Kronikak jarraitu egingo du, Gaztetxeko berri ere ematen. ■



'Hilerokoa' argitalpenaren bigarren alea aurkeztu du Kontrakantxak.

■ UDALA KULTURA

Bide berriak, espazio publikoak erabiltzeko

«Eskaerei ahal den ondoen erantzuteko» eskaerak nola bideratu zehaztu du Udalak.

ASKO dira Hernanin urtean zehar antolatzen direnak, «denon ekimenari esker». Hori horrela, Udalak zehaztu du nola bideratu beharko diren aurrerantzean espazio publikoak erabiltzeko eskaerak; «ahalik eta ondoen erantzun nahi diegu zuen eskaerei», azaldu du.

Kontuan hartu beharreko arau hauek kalean antolatzen diren ekitaldietarako dira; plaza, parke, eskolako patio, kale... Ez kultur etxean, kiroldegian edo beste eraikin publiko batean antolatzen direnetarako.

Eskaerak egiteko orriak, epeak eta lehentasunak

Egin den aurreneko aldaketa da eskaera-orriari dagokiona. Aurrerantzean, espazio publiko batean ekitaldiaren bat antolatzeko eskaera egiteko, erabili beharko da espreski horretarako prestatu den eskaera-orria. Udaletxeko Herrita-

rren Harrera Zerbitzuan eskaertu eta entregatu behar da.

Eskaera-orri horietan, arduraduna zein izango den zehaztean, ekitaldiaz arduratuko den horren datuak jarri beharko dira, eta ez taldeko beste kide batenak.

Epeei dagokienez, eskaerak gutxienez hamabost eguneko tartearekin egin beharko dira; tarte txikiagoarekin eginez gero, ezingo direla bermatu adierazi du Udalak. Bestalde, gehieneko epea ere zehaztu da: ezingo dira urte batetik besterako erreserbak egin, gehienek, ekitaldia antolatu baino hiru hilabete lehenago egin ahal izango baitira eskaerak.

Azkenik, adierazi du espazio bera erabiltzeko eskaera bat baino gehiago jasoz gero, eskaera lehenago egin duenak izango duela lehentasuna.

Behin eskaera eginda, dagokion udal saileko langilea jarriko da eskatzaileekin harremanetan. ■

■ XALAPARTA ELKARTEA

Sagardo Txapelketa gaur, Xalapartan

Afari eder baten bueltan, XXV. Sagardo Txapelketa egingo dute gaur Xalaparta elkarteak, iluntzeko 20:30etan hasita. Denera, 10 sagardotegik hartuko dute parte: Hernaniko Altzuetak, Itsasburuk eta Zelaiak; Astigarragako Artolak, Bereziartuak, Lizeagak eta Oialume Zarrek; Andoaingo Gaztañagak; Urrietako Setienek; eta Zubietako Astiazaran-Iruinek. Hurrengo zita, berri, astelehenean daukate, XXXV. Elkarte Arteko Mus Txapelketa hasiko baita, Goiz Eguzki eta Sagastialde elkarteetako bikoteen arteko partidekin. ■

■ AMHER

Bizilagunekin bazkaltzeko, izen-ematea

Eguna zehaztu da aurreneko, Bizilagunak ekimenerako: azaroaren 17an izango da aukera, mahai eta bazkari baten bueltan bildu, eta bertako eta kanpotik etorritako jendearen artean elkar-egutzatza sustatzeko. Parte hartu nahi duenak Amherrera deitu dezake, dagoeneko, izena emateko: 943 33 60 71. Behin izena emanda, antolatzaileek jakinaraziko dute norekin elkartzea egokitu zaion bakoitzari, eta laguntza emango dute, bazkaria non eta nola antolatu jakiteko, eta aurreneko harremana egiteko. ■

■ LANBIDE HEZIKETA

Bizikleta eske ikasleak, Wukrorako

Proiektu berria jarri dute martxan Gizarte Berrikuntzako LHIIko Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek: bizikleta zaharrak berriro eta Wukrora, Etiopiara bidaliko dituzte. Hori horrela, dagoeneko erabiltzen ez dituzten bizikletak bertara eramateko eskatu diete herritarrei. ■

■ PSE-EE KATALUNIAKO ADIERAZPENA

«Katalunian izan diren ekintza biolentoak gaitzetsi ez izanaren falta nabaritu dugu»

PSE-EEK adierazi du ez duela sinatu Kataluniari buruz EH Bilduk, EAJk eta Elkarrekin Podemosek sinatutako adierazpena.

PRENTSA ohar bidez, PSE-EEK adierazi nahi izan du ez duela sinatu pasa den astean EH Bilduk, EAJk eta Elkarrekin Podemosek kaleratu zuten adierazpen instituzionala, Kataluniako auziari buruzkoa. «Katalunian izan diren ekintza biolentoak gaitzetsi ez izanaren falta nabaritu dugu. Justifikatu ezin daitezkeen ekintzak, eta batez ere Katalunia eta kataluniarrak, eta bereziki Bartzelona kaltetzen dituztenak». Era berean, «depejzioa» izan da sozialistentzat, «alderdi bakar batek ere ekintza biolentoak gaitzesteko eskaera argirik ez egin izana».

Auzitegi Gorenaren sententziarekiko PSOEek erakutsitako jarrera ere babestu dute Hernaniko sozialistek. «Gardentasunez eta berme guztiekin

«Demokrazia batean ez da inor epaitzen bere ideia edo proiektu politikoagatik»

egin den prozesu judizialari bukaera jarri dio epaiak, eta beraz, epaia errespetatu eta betetzen dugu, Eskubide Demokratiko eta Sozialeko Estatu bati dagokion moduan. Hiritar guztiak berdinarak gara legearen aurrean. Inor ez dago gainetik, eta denok bete behar ditugu. Era berean, demokrazia batean ez da inor epaitzen bere ideia edo proiektu politikoagatik, baizik eta ordenamendu juridikoan jasotako delituengatik».

«Kataluniarren arteko elkarbizitza dago jokoan»

Sozialisten esanetan, «Procesaren epaiketak iraun bitartean Auzitegi Gorena autonomia, gardentasun, berme eta profesionaltasun eredu izan da, Botere Judizialaren funtzionamendu zuzenaren erakusle».

Orain, epaia emanda, «etapa berria» ireki dela gehitu du, eta Espainiako Gobernuak «demokraziaren sendotasunetik, proportzionaltasunetik eta batasunetik» berrmatuko dituela «elkarbizitza, segurtasuna eta lede demokratikoa». «Kataluniak orain Kataluniarekin hitz egin behar du. Kataluniarren arteko elkarbizitza dago orain jokoan, eta ez, dagoeneko, Espainiako lurraldetasuna». ■

■ HERNANI ERABAKI

Astelehenetik aurrera bozkatu ahal izango da 22 proposamenen artean

2020ko udal aurrekontuetako 500.000 euro zertarako erabili erabakitzeko epea irekiko zaie herritarrei, azaroaren 24ra arte.

ERABAKI Hernani parte-hartze prozesua iritsi da bozketa fasera. 2020ko udal aurrekontuetan txertatzeko 22 proposamenek egin dute aurrera, eta orain, 500.000 euro proiektu horietako zeinetan erabili erabakitzeko botoa eman ahal izango dute herritarrek.

Botoak emateko epea astelehenean hasiko da, eta azaro-

aren 24ra arte luzatuko da. Ohi bezala, 16 urtetik gorako hernaniarrek eman ahal izango dute botoa, eta hiru bide izango dira horretarako: aurkezpen saioetan eta informazio puntuetan; etxean jasoko diren eskuorriak bete eta udal eraikinetako postontzietan utzia, eta interneten, erabaki.hernani.eus webgune-

an. Bestalde, iaz bezala, 8 eta 16 urte arteko gazteek hartuko dute parte prozesuan, Eskola Agenda 21 programaren bitartez, ikastetxeetan.

Bilera auzoetan, etzi hasita
Proposamenak ezagutzeko aurkezpen irekiak egingo dira auzoz auzo. Aurrenekoa astelehenean, 18:00etan udaletxean. ■

■ KALEKO ELKARTASUN ETA KULTUR ELKARTEA

Disko eta liburuak aukeran berriro, biharko azokan

Plaza Berrin jarriko dira postuak bihar, 10:30etatik 14:00etara.

AZOKA jarriko du berriro ere bihar, Kaleko Elkartasun eta Kultur Elkarteak. Beste behin, «egoera onean dauden liburu, diska eta CDak» jarriko dituzte postuetan salgai, Plaza Berrin, goizeko 10:30etatik 14:00etara bitartean. Denera, «egoera onean dauden 1.000tik gora liburu, diska eta CD» direla azpimarratu dute.

Saldu, eta jaso ere bai

Postuetan material hori guztia saltzeaz gain, bilketa ere egingo dutela jakinarazi dute. «Nahi duenak erabiltzen ez dituen liburu, musika CD eta binilozko diskoak eman ditza-ke. Ez da jasoko entziklopediarik, ezta aldizkaririk ere».

1.000tik gora liburu, diska eta CD jarriko dira bihar salgai.

Emateko moduko materiala daukana eta bihar azokara gerturatu ezin duena, azokasolidario@gmail.com helbidean harremanetan jarri daiteke elkartearekin.

Webgunea, aukeran

Bestalde, elkartearen inguruko informazio gehiago nahi duenak webgunean eskuragarri duela ere jakinarazi dute: www.azokasolidario.eus. ■

■ UDALA

Iruñeara joateko deia, Altsasukoen alde

Hernaniko Udalak Altsasuko gazteei eta haien senitartekoei elkartasuna adierazi nahi izan die, eta gaur, *Hau ez da justizia* lelopean Iruñean egingo den kontzentziora joateko dei egiten die hernaniar guztiei. Datorren astearteko Plenorako mozioa aurkeztea aurreikusi zuten lehenengo, baina, azkenean, erretiratu, eta osteguneko Bozeramaile Batzordean erabaki zen gaurko deialdia egitea. ■

■ Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.


I. URTEURRENA
Pilar Lombide Idarreta

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*

Zure falta sumatzen dugu.

ETXEKOAK

Hernanin, 2019ko urriaren 26an





**FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...




HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

TXANTXILLA AUZOA

Egun nagusia gaur, Txantxillako jaiek

Maialen Lujanbio eta Unai Agirre bertsolarien atzoko saioari jarraipena emanez, haur eta helduentzako ekitaldiz beteriko egitaraua prestatu du gaurko, Txantxilla Auzo Elkarteko Festa Batzordeak.

ATZO hasi ziren Txantxilla auzoko jaiak, eta gaur izango dute bigarren eguna, nagusia.

Adin tarte guztietako herri-tarrek izango dute aukera, gaurko festa egunaz gozatzeko, horretaz arduratu baita Txantxilla Auzo Elkarteko festa batzordea, egitarau zabala eta anitza prestatuz.

Goizean goizetik, Musika Eskolako txistularien Dianak girotuko du auzoa; eta jarraian abiatuko dira, Txantxilla-Santa Barbara-Txantxilla krosetako partehartzaileak. Haurrek ere izango dute parte hartzeko aukera, beren mailako krosetan, eta baita antolatu diren bestelako jolasetan aritzeko ere.

Eguerdi aldera, sagardo dastaketa eta pintxoak izango dira, auzora bertaraten diren guztientzat; eta ondoren, auzotarren bazkaria egingo da.

Arratsaldean, helduentzat toka txapelketa antolatu dute; eta haurrentzako, aldiz, Txoriburu izeneko ikuskizuna. Txokolatadaz gozatuko dute, ikuskizunaren ondoren. Eta segidan

izango da, auzotarrentzat hain kuttuna den Arimen Kalejira, Hernaniko dultzaineroekin.

Jan-edanarekin eta dantzan borobilduko dute eguna: pintxopotea izango da, Gozo-gozo taldearen erromeriarekin batera. Eta gaueko 23:00etan jaiak bukaera emateko traka leherraziko badute ere, nahi duenak aukera izango du, festa giroan murgilduta jarraitzeko, disko jartzailearen erritmora.

Krosak, zazpigarren edizioa

Zazpigarren edizioa izango du gaurko, festetan jokatzeko den krosak. Goizeko 10:30etan abiatuko da, Txantxillako plazatik; eta 6,3 kilometro osatu behar dituzte korrikalariek, baina ez dira errazak izango: Santa Barbarako ermitara igo behar dute, berriro Txantxillako plazara jaitsi aurretik. Dutzak eta aldagelak eskura izango dira kiroldegian, bukaeran.

Sari ugari zozketatuko dira partehartzaile guztien artean, eta gaur bertan ere izena eman daiteke 7 euroan, irteeran. ■



Maialen Lujanbiok eta Unai Agirrek jarri zituzten festetako aurreneko doinuak.



Haur eta heldu, denek aurkitu dute 'jolastoki' aproposena, Txantxillako festetan.

TXANTXILLAKO JAIK

GAUR, larunbata

09:00, Diana Hernani Musika Eskolako txistulariekin.

10:30, Txantxilla-Santa Barbara-Txantxilla VII. Krosa (ermitara igo eta jaitsi). Izena emateko aukera izango da probaren aurretik ere, 7 euroan.

11:30, Haur jolasak eta haurren krosa.

12:00, Sagardo dastaketa eta pintxoak.

14:30, Auzotarren bazkaria

17:00, Helduen toka txapelketa.

17:00, 'Txoriburu' haurrentzako ikuskizuna

18:00, Txokolatada

19:00, Arimen kalejira, Hernaniko dultzaina taldekoekin.

20:00, Pintxo potea, eta Gozo-gozo taldearekin erromeria.

23:00, Festen amaierako traka, eta jarraitu nahi duenarentzako disko jartzailea.

ezkati

Gora txantxillako jaiak!

ileapaindegia

Iturri, 4
Hernani
943 55 65 56
Hartu ordua

Arrobi ostatua

Ostatua Hamburgesak
Kaxuelak Plater konbinatuak
Ogitartekoak

GORA TXANTXILLAKO JAIK! ONDO PASA!

Santa Barbara auzoa 87
20120 HERNANI
tel 943 337 211
mov 629 991 476
info@arrobiostatua.com

LEKUONA

Kafetegia - Okindegia

Ondo pasa txantxillako jaietan!

Aristizabal 9, behea
943 33 59 45

txantxilla kafetegia

Pintxoak, gosariak, eta asteburutan razio beroak (krokotak, kalamarak...)

Auzotarrei eta hernaniarrei **FESTA GIRO ON BAT OPA DIZUEGU!**

Igandean, kafetegia eskutik
MUS TXAPELKETA 16:00etan

943 244 230 · Txantxilla auzoa 7

AROZA TABERNA

ETXEAN BERTAN EGINDAKO OTORDUAK

Ondo pasa auzoko jaietan!!

ONGI ETORRI

Txantxilla 4 (Hernani) 943 29376

■ HARITUZ ELKARTEA

Prostituzioa eta sexu-esplotazioa aztertuko dute gaur Donostian

‘Pentsamendu feminista II. Topaketa’ antolatu da Aquariumean eta zazpi hizlari ariko dira, eremu ezberdinetatik, gaia lantzen.

HARITUZ elkarteak *Prostituzioa eta sexu-esplotazioa helburu duen salerosketaren kontra saretzen* izenburupean Madajas-Matazak Topaketa Feministak antolatu ditu gaur Donostiako Aquariumean. Bigarren edizioan, gaia «eremu ezberdinetatik» landuko dute. 09:00etatik 14:00etara ariko dira eta 16:00etatik 19:30etara.

Ikuspegi abolizionista

Prostituzioa eta sexu-esplotazioa helburu duen salerosketaren kontra saretzen izeneko jardunaldi hauetan, «ikuspegi abolizionista» landuko da, «juridikoki, polizialki, asistentzialki edo komunikabideen arlotik, besteak beste». Hala aurreratu dute sareetan.

Zazpi hitzaldi, zazpi hizlari desberdinen eskutik

Hizlari desberdinak ariko dira. Rosa Cabo Bediak hitz egingo du, prostituzioa, feminismoa eta abolizionismoaren inguruan. Arantza Campos, prosti-



Isabel de Ocampo.

tuzioari lotutako alderdi juridikoak lantzen ariko da. Hirugarren hizlaria, berriz, Isabel de Ocampo izango da, *Serás Hombre* dokumentalaren zuzendaria. Hain zuzen, ikus-entzunekoei tresna erakitzailerik gisa izan dezaketen botereari buruz hitz egingo du; «zein funtzio dute, gai hauekiko sentsibilizazioa lantzeko?» egiten du galdera.

Leticia Matarranz, ikuska-

tzailea, Polizia Nazionalen neurriez ariko da eta APRAMP-eko ordezkari bat ere ariko da salerosketa biktimenzako arretaz hizketan. Joseba Iñaki Arteaga, Izaki salerosketaren kontrako batzorde egonkorren Ertzaintzaren aduraduna eta EHMA (Euskal Herriko Mugimendu Abolizionista) elkartearen ordezkaria *Euskal Herrian esku hartzeko eremuaz* egingo du hizketan eta Amelia Tiganus, ekintzaile feminista, *Emakumeak eta neskak, prostituzioko salgaia: Nola gauzatzen den puta bat?* gaia landuko du.

Garbiñe San Miguel kazetaria izango da aurkezlea, eta Jessica Murillo kazetaria, berdintasunean eta genero indarkerian bitartekotzan aditua, ariko da moderatzaile lanetan.

Astigarragako Harituz elkartearen lehendakaria den Isabel Otero Gloriek egingo du hasierako aurkezpena. Eta ondoren 09:30etan hasiko dira hitzaldiekin. ■

■ ANTZERKIA



‘Oxido’ antzezlanean momentu bat.

‘Oxido’ antzezlana, gaur kultur etxean

Umore garratzeko ikuskizuna da *Oxido* antzezlana. Gaur ikusi ahal izango da kultur etxean, 20:00etan, Pez Limbo konpainiaren eskutik. Hiru pertsona ohiz kanpoko hiru egoeratan topatuko dira, egoera barregarriak, baina agerian utziko dutenak pertsonaien herdoildutako giza harremana, baita bizi diren gizartearen herdoila ere. Sarrera: helduek 6 euro, eta adin txikiek 3. ■

■ SAGARDOA

Petritegiren ate irekiak egingo dira bihar

Bihar, beste urte batez, Astigarragako Petritegi sagardotegiak bere ateak zabalduko ditu euskal sagardogintza erakusteko. Otaño familiak eta Petritegiko lan taldeak denak, adinak garrantzirik izan gabe, protagonista izan daitezten, egitarau anitza prestatu dute: Kizkiarekin sagararak biltzen abilezia frogan jarriko du; sagararak txikitu ahal izango dira pisoiak edota matxaka erabiliz... Eta sari moduan bertan estututako sagarretik lortutako sagar zuku edo zizarra dastatu ahal izango da. ■

■ KINTO BAZKARIA

59an jaiotako bazkaria, azaroaren 17an

1959 urtean jaiotakoak elkartuko dira bazkarian datorren azaroaren 17an. Izena emateko 661 237 026 telefonora deitu behar da (Roxa). ■

■ LITERATUR SOLASALDIA

Canoren ‘La voz del faquir’, solasaldian

Jorge Carrerol zuzendutako literatur solasaldia Harkaitz Canoren *La voz del faquir* (Seix Barral) liburuaren ingurukoa izango da etzi, astelehenetan. Hitzordua liburutegian da, 19:30etan. ■

■ TAILERRA

Konfiantza indartzeko tailerra, euskeraz

Konfiantza indartzeko prestakuntzaren bidez norik ezagutza eta onarpenarako kontzientzia eta barne konfiantza indartzeko tresnak landuko dira euskeraz, alde emozionalekoak, gorputzekoak eta hizkuntza mailakoak. Antolatzailea Astigarragako emakume feministen talde bat da eta urriaren 31ean, ostegunean, hasiko dira 18:00etatik 20:00etara kultur etxean, eta azaroaren 30era bitarte luzatuko dira azaroaren 8, 15, 22 eta esandako azaroaren 30ean. Azken egun hori larunbata da eta 09:30etatik 13:00era egingo dute. ■

■ GAZTELEKUA

Muga Ranch Westernera, gaur irteera

Muga Ranch Western (Zizurkil) zalditegira irteera antolatu du Gaztelekuak. 15:45etan irtengo dira Gaztelekutik. Bertan, zaldi gainean ibili eta westerna ezagutzeko aukera izango da. Bihar berriz, Gaztelekuan, sukaldaritza mexikarrari buruz tailerra egingo da. ■

■ SAGAR UZTA JAIA



Imanol Lorenzo eta Isidro Rodríguez irabazi dituzte lehenengo eta bigarren saria.

Rodríguez eta Lorenzo, sarituak argazki rallyan

Isidro Rodríguez (bildumarik onena) eta Imanol Lorenzo (bigarren sailkatua) izan dira irailaren 26-29an Astigarragan jokaturako XII Sagar Uza Argazki Rallyko irabazleak. XII. Sagar Uza Argazki Rallyko argazki erakusketa, datorren ostegunean, urriaren 31 bitartean ikusgai izango da Astigarragako Kultur Etxean. Era berean, astelehenetik martxan jarri zen beste lehiaketa bat Sagardoaren Lurraldeko Instagrameko kontuan, eta atsegite gehien jasotzen dituen argazkiak, publikoaren saria jasoko du. ■

■ ELKARBIZI TALDEA

‘Euskal kultura adierazpenak baketzearen aurrean’ saioa antolatu du Elkarbizi taldeak

Eugenio Ibarzabal eta Inazio Mujika izango dira hizlariak asteazkenean, urriaren 30ean, Astigarragako kultur etxean.

ELKARBIZI taldeak Astigarragan antolatu du bere ikasturteko programaren hurrengo saioa. Asteazkenean izango da, urriaren 30ean, arratsaldeko 19:00etan kultur etxeko areto nagusian eta *Euskal kultura adierazpenak baketzearen aurrean* izango da landuko den gaiaren izenburua.

Eugenio Ibarzabal eta Inazio Mujika idazleak izango dira hizlariak. Eugenio Ibarzabal, 1980ko *Garaiz gabiltz* agiria egi-

ten parte hartu zuena; eta Inazio Mujika Iraola, 2000 urtean atera zen *Isiltasuna ez da aterpe* adierazpenaren sinatzaile.

‘Garaiz gabiltz’ eta ‘Isiltasuna ez da aterpe’, kulturaren ordezkariak eta intelektualek sinatu zituzten agiriak

Garaiz gabiltz agiria, Ibarzabalek bezala, «euskal kulturaren ordezkari nabarmenek» sinatu zutela gogorarazi du Elkarbizik: Barandiaran, Mitxelena, Caro Baroja, Lekuona, Chillida... «33 sinatzaileek gogoan zuten kanpotik gidatutako indarkeria, eta euskal arazoarekiko agertzen zen ulertezintasuna. Hala ere, inongo erreparorik gabe azaldu zuten honakoa: orenen ginetik arduratzen gaituen indarkeria, bertan jaio eta gure artean habia egiten duena da», nabarmendu du Elkarbizik.

Isiltasuna ez da aterpe adierazpena sinatu zuten «140 euskal intelektualek», berriz, aitortu zuten «bortizkeria errotik astintzen» ari zela Euskal Herria; eta onartezina zela, «indarkeriak euskal gizartearen dinamika demokratikoa ordezkatu nahi izatea».

Hori horrela, «indarkeriaren aurrean euskal kulturak izan duen posizioa epaitzen denean», Elkarbizik uste du «oso komenigarria» dela, gogoratzea bi esku-hartze horiek izan zuten «garrantzia publikoa».

Plaza mugatuak, eta izena ematea etzira arte

Ohi bezala, saioan parte hartzeko, izena eman beharko da aurrez, ganboiturri@gmail.com helbide elektronikora idatzita. Plazak mugatuak dira, eta etzi astelehenean, urriaren 28an bukatuko da izena emateko epea, astelehenean. ■

■ SAGARDOETXEA

Sagarra jotzea, gaur eta bihar

Sagardoetxean sagar muztioaren elaborazio tailerra egingo da asteburuan zehar. Sagarrari zukua atera familian! jarduera eskainiko du eta sagarra jotzeko aukera edukiko dute familiek. Gaur 12:00etan eta 17:00etan egingo da eta bihar 12:00etan. ■

■ ESKULTURA

‘Ur gardena’ azaroan inauguratuko da

Andre Gobaralarien Parkea ireki berri da, eta bertan egongo den Mari Jose Lacadenaren *Ur gardena* eskultura azaroaren 14an inauguratuko da, azken orduko aldaketarik ez baldin badago. ■

■ MUSIKATERAPIA

Helduenzako klaseak, asteazkenetik

Aurten Musika Eskolak, adineko pertsonentzat proiektu berri bat sortu du, musikaterapia, «nagusien bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin», musikak dauzkan onurak erabiliz. Adineko pertsonen zuzendutako saioak, asteazkenean hasiko dira eta 11:00etatik 12:00etara bitartean egingo dira, Arrobitxuloko elkartearen. ■

■ GAZTE ASANBLADA

Pala txapelketa mistoa, gaur goizez

Astiarako Gazte Asanbladak gaur goizean, 09:00etatik aurrera, pala txapelketa mistoa antolatu du Txomiñenean eta herritarrak bertara hurbiltzera animatzen ditu. Gero, Iruñara autobusa antolatu da Altsasuko gazteen aldeko manifestaziora joateko eta bueltan afarria egongo da eta herrian paranda. ■

■ UDALA

Urriko Plenoa, 19:00etan asteartean

Urriko Plenoa udaletxeko areto nagusian asteartean egingo da, 19:00etan hasita. ■

■ UDALA

Egutegia osatzeko argazkiak bidaltzeko azken egunak

Asteazkenean arte dago epea eta bost argazki aurkeztu daitezke gehienez.

2020KO egutegia osatzeko herritarren argazkiak erabiliko dira eta asteazkena da, urriaren 30a, aurkezteko azken eguna. Urriaren hasieran abiatu zuen Udalak lehiaketa. Edonork, adin zein jatorri guztietako herritarrek hartu ahal izango dute parte. Dena den, hainbat baldintza bete beharko dituzte.

Batetik, argazkien gaiarena; Astigarraga gaiaren bueltakoak izan beharko dute argazkiek, hau da, bertako paisaiak, eraikinak, guñeak, kaleak, jaiak, ospakizunak edo bertako jendea irudikatu beharko da.

Bestetik, parte-hartzaile bakoitzak ezin izango du 5

argazki baino gehiago aurkeztu.

Sariak, azaroaren 7an

Kultura batzordeko kideek egingo dute argazkien aukeraketa argazkilaritzan aditua den norbaitekin batera. Horiek, irabazlea hautatzeaz aparte, beste 12 argazki ere aukeratuko dituzte, hilabete bakoitzeko bana. Azaroaren 7an emango dute saridunen berri. Irabazleak 150 euroko erosketa bonoa jasoko du, abenduaren 31ra arte Astigarragako ostalaritza, merkataritza edo zerbitzuren batean erabiltzeko. Beste 12 sailkatuek, aldiz, 80 euroko bonoa jasoko dute. ■

■ ODOL EMAILEAK



Juan Carlos Sanchezek diploma jaso zuen 75 aldiz odola eman eta gero. Pasa den ostiraleko odol ematea.

Odol emaleek zoriontzeko moduko datuak lortu dituzte

Poza handia hartu dute Astigarragako odol emaleen elkartearen aurreko astean 50 pertsonen odola eman zutelako, horien artean lau odol emale berri izan ziren. Gainera, gazte asko animatu ziren odol ematera. Bestalde, igandean Donostian, zonaldeko odol emaleen urteko batzarra egin zen eta Astigarragako elkartetik hiru odol emaleek diploma jaso zuten. Juan Carlos Sánchez, 75 aldiz odola eman duen lehenengo astigarrarri, zoriontzeko aukera izan zen. 25 aldiz odola eman dutenak Joseba Zabalegi eta Jone Olaziregi izan ziren. ■

■ GOIZUETA BINAKAKO BAKARRIZKETA



Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena izango dira bakarlariak, gaurko emanaldian.

Umomezko bakarriketak gaur, Martiarenak eta Torregaraik

'Bakean dagoena, bakean utzi' emanaldia eskainiko dute, 19:00etan eskolako jangelan. Sarrerak bertan salgai, 3 euroan.

UMORE saioa izanen da gaur, Goizuetako eskolako jangelan. *Bakean dagoena, bakean utzi* emanaldia eskainiko dute Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenak, arratsaldeko 19:00etan hasita: elkarrekin jositako sei bakarriketa umoretsu.

Euskera eta generoa izanen

dituzte umorerako gai nagusi, eta makina bat kontu ikutuko dituzte: euskalkiak, onomatopeiak, amatasuna, gorpuztasuna edota kristalezko sabaia, besteak beste. Ordubeteko saioa izanen da, eta egunerokotasunetik eta jolasetik landuko dituzte horiek guztiak, «umore

betaurrekoak jantzita», aurreratu dutenez.

Sarrerak bertan, 3 euroan

Adin guztietarako emanaldia izanen da, eta saioa ikusteko sarrerak, gaur bertan egonen dira salgai, eskolako jangelan: 3 euro izanen dira. ||

■ ARANO-GOIZUETA MENDIALDEA MANKOMUNITATEA

Berrerabili edo zaharberritzeko tailerra, ostegunean Maisuenean

Bigarren tailerra egingen dute, 'Dakienak ez dakienari erakutsi' egitasmoaren barruan. Maisuenean izanen da, 18:00etan hasita.

DUELA bi aste pasatxo egin zuten aurreneko tailerra Aranon, *Dakienak ez dakienari erakutsi* egitasmoaren barruan, Mendialdea Mankomunitateak antolatuta. Eta datorren ostegunean egingen dute bigarrena: berreskuratzeko nahiz zaharberritze tailer irekia. Maisuenean izanen da, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Urriaren 10eko tailerrean, erosketa ohiturak aldatzeari buruz aritu ziren, eta landu zuten nola egin erosketak, zaborrik sortu gabe, eta zer egin daitekeen, egunerokoan zaborra ekiditeko. Oraingo honetan, be-

«Etxean hondakin izateko zorian daukagun zerbaiti, aukera berri bat ematen saiatuko gara»

rriz, saiatuko dira «aukera berri bat» ematen, «etxean hondakin izateko zorian daukagun zerbaiti: altzari txikiren bat, kartoizko, kristalezko edo plastikozko zerbait, oihal zatiren bat...», azaldu dute.

Horretarako, elkarri lagunduko diote, eta bakoitzak duen ezagutza, besteekin konpartitu.

Azaroaren 8an, Goizuetan

Aranon bezala, Goizuetan ere jarri du martxan egitasmoa, Mendialdea Mankomunitateak; eta aurreneko tailerra egingo dute dagoeneko, han ere. Urriaren 11n izan zen hori, Aranoko saioaren hurrengo egunean.

Bigarrena, berriz, astebete beranduago egingen dute, Goizuetako eskolako jangelan. Azaroaren 8an jarri dute hitzordua, ostiralarekin; arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Gaia, berbera izanen da: etxeko hondakinak berrerabili, berreskuratu eta zaharberritzea landuko dute. ||

■ GOIZUETA GARAGARDO FESTA

Jendetza elkartuko da gaur Umore Onan, Garagardo Festarako

Berehala agortu ziren, salgai jarritako 80 txartelak. 21:30etan hasiko da afaria.

GARAGARDO Festa antolatu du gaurko, herritar talde batek, Umore Ona elkartearen babesarekin. Elkartean bertan izanen da, gaueko 21:30etan hasita, eta arrakasta ziurtatuta dago, hasi aurretik ere: salgai jarritako 80 txartelak berehala agortu ziren, epea baino aste-

bete lehenago.

Horrelakoetan izaten den afari tipikoaz eta garagardoaz gainera, musikaz ere gozatu dute bertaratuek, konpletoa izateko aurreneko Garagardo Festa hau. Ziur ez dela azkena izanen, baina toki haundiagoa bilatu beharko dute, hurrengorako! ||

■ GOIZUETA UMORE ONA ABESBATZA



Argazkia: FELIX LOIARTE

Umore Ona abesbatzako kideak, ekaietan, denboraldi bukaerako ospakizunean.

Umore Ona eta Tuterak Kantuz elizan, bihar

Kontzertua eskainiko dute bi abesbatzek, Goizuetako elizan, eguerdiko 12:30etan.

KANTUAZ gozatzeko zita jarri du bihar, Umore Ona abesbatzak. Eta oraingoan, ez dira bakarrik egonen, goizuetarrak: Tuterak Kantuz abesbatza etorriko da herrira, eta elkarrekin ariko dira biak.

Goizuetako elizan eskainiko dute kontzertua, bihar eguerdi-

ko 12:30etan hasita, eta «abesti ederrak entzuteko aukera» izanen dute bertaratuek, aurreratu dutenez.

Goizuetako eta Tuterako abesbatzek bat eginda, «Nafarroako iparralde eta hegoalde kantuz lotu» egingen dutela nabarmendu dute. ||

■ EREÑOTZU OSASUNA

Gripearen txertoa jartzeko, izenematea

Hitzordua jarri dute Ereñotzun, gripearen aurkako txertoa jartzeko. Urriaren 31n izango da, eta txertaketarako, derrigorrezkoa izango da izena ematea, aldeztu aurretik. Horretarako, hilaren 30 baino lehen jo behar da Auzo Udalera, edo telefonoz deitu, 943 55 10 00 telefonora. ||

■ EREÑOTZU UDAZKEN KULTURALA



Argazkia: EREÑOTZUKO AUZO UDALA

Lizarrara joan zen ereñotzuar taldea, herriko zubietako batean. 15 lagun animatu ziren.

Lizarrako 'martxatik', Zumaiako Flyschera

Zumaiara egingo dute irteera gaur, ereñotzuarrek. Aurreko larunbatean, Lizarran izan ziren adinekoak: paseoa, bazkaria, bingoa, dantzaldia...

UDAZKEN kulturalaz gozaten jarraitzen dute ereñotzuarrek, eta aurreko larunbatean Lizarran izan baziren adinekoak, Zumaiara joango dira auzotarrak gaur, Flyschera bisita egingo. Goizeko 09:15etan abiatuko dira autobusean, eta Zumaiara bertan bazkalduko dute.

Lizarrara, 15 laguneko taldea joan zen, arduradunarekin ba-

tera, eta martxa ederrean pasa zuten eguna: Iratxan hamaitakoa, kontserbera bisitatu, Lizarran paseatu, eta Iratxera buelta: bazkaria, bingoa eta dantzaldia izan zuten bertan!

Ogi tailerlean, izenematea

Azaroaren 8an eta 9an izango da hurrengo zita: ogi tailerra, Eguzkileire okindegiaren esku-

tik. Lau saiotan egingo dute: ogi ekologikoa nola egin ikasteko bi tailer Ur-Mia elkartearen ostiralean 17:00etan eta larunbatean 08:00etan; bideo emanaldia ludotekan, ostiralean 19:30etan; eta ogi dastaketa eta bazkaria, bigarren taileraren ondoren. Izena eman behar da aurrez, Auzo Udalean, azaroaren 4ra arte. 15 euro dira. ||

■ GOIZUETA KULTUR AGENDA



Argazkia: GOIZUETAKO UDALA

Aurreko larunbatean elkartu zen goizuetar koadrila, ibilaldia bukatzeaz, herria atzean dutela.

Historiari errepasoa, Abañotik Goizuetara

Ibilaldia egin zuten 27 lagunek, Hernani eta Goizueta arteko bidearen zati bat osatu, eta Jose Jabier Etxeberriaren azalpenekin historia ezagutzeko.

PAUSOZ pauso egin zion historiari errepasoa, aurreko larunbatean, goizuetar talde batek. Kultur Agendaren baitan, ibilaldia osatu zuten, Abañotik abiatu eta Goizuetan bukatuta, Aranotik igaroz; Hernani eta Goizueta lotzen dituen oinezko

bidearen zati bat, hain justu.

27 laguneko taldea elkartu, eta historiako hainbat pasarte ezagutzeko aukera izan zuten, ibilbidean zehar, Jose Jabier Etxeberriaren azalpenekin. Goizean goiz joan ziren Abañora autobusez, eta eguerdiko ordu-

baterako ziren Goizuetan, ibilaldia bukatuta.

Plan borobila izan zen, eta gustora asko ibili ziren partehartzaile guztiak: hurrengo ibilaldirako zita jarri zuten, eta baita mendi taldea sortzeko gozaga azaldu ere! ||

■ ARANO-GOIZUETA GIZARTE ZERBITZUAK

Kalitatearen Saria, Butantxo proiektuak

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kalitatearen Saria irabazi dute LAGA Gizarte Zerbitzuek. Aranon eta Goizuetan garatu da proiektua.

SARI potoloa eskuratu berri du Leitza, Areso, Goizueta eta Arano Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak: Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kalitatearen XII. Saria irabazi du, Nafarroako Butantxo, Zaintzeen Herria esperientziagatik.

«Butan herrialdeko bizitza-filosofian dago oinarrituta proiektua, eta 2016tik gaur egun arte, Goizuetan eta Aranon ari da garatzen. «Auzokideen arteko tratu onak bultzatzea» du helburu, eta baita pertsonen arteko harremanak sendotzea eta estutzea ere. Praktika hori berritzailez jo du epaimahaiak. Baloratu du bere «originaltasuna eta berezitasuna», eta «Nafarroako beste herri batzuetara zabaldu daitekeen ekimen» dela nabarmendu du.

Proiektuaren beste hainbat ezaugarri ere goraipatu dituzte epaimahaiak: herritar guztientzako proiektua izatea, belaunaldien artekoa, diziplina artekoa eta anitzekoa, pertsonak eta komunitatea ahalduntzea, eta autogobernuaren ildo-

an lan egitea. Eta azkenik, nabarmendu du prebentziarako tresna dela, «esku hartzeko eta kaltea konpontzeko fasearen aurrekoa».

Asiako herrialdeekin

«antzekotasunak», Arano eta Goizuetak

Himalaya mendilerroan dagoen herrialdea da Butan, Tibet eta Indiaren artean kokatua. Eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak azaldu du, «antzekotasunak» aurkitu zituztela, Goizueta eta Arano eta Asiako herrialdeen artean: sakabana-keta, nortasun propioa, bizilagunen arteko harremanen kalitatea edota auzolana.

«Butanen bezala, Barne Produktu Gordinaren ordez, ongizatea neurtzen duten beste osagai batzuk balioan jarri eta indartu nahi izan ditugu; hala nola, zaintza lanak, denboraren erabilera, naturak suposatzen duen kapitala, ingurumenaren kalitatea, alderdi sozio-ekonomikoa eta kapital soziala», azaldu dute. ||

■ GOIZUETA UMORE ONA ELKARTEA

65 urtetik goitikoek festa, datorren astean

Truk eta Mus Txapelketak jokatu dira larunbatean; igandean, egun osoko plana.

URTEROKO ohiturari eutsiz, 65 urtetik goitikoek festa antolatu du Umore Ona elkarteak, datorren astebururako. Bi egun izanen dute zerekin gozatua.

Larunbatean, Truk eta Mus Txapelketak jokatu dituzte, elkartearen bertan, arratsaldeko 16:00etan hasita.

Eta igandean, egun osokoa izanen da plana. Aurrena, pilota partiduak jokatu dira frontoian, 10:00etan hasita. Umore Ona Txapelketaren laugarren edizioa aurreko partiduak izanen dira, hain justu. Ondoren, 11:00etan, 65 urtetik goitikoentzako meza izanen da eli-

zan. Eta handik elkartera mugituta, borobilduko dute festa: bazkaria (arrain zopa, legatza, solomilloa, tarta txanpainarekin, kafea eta likoreak), eta Luix Elizegiren musika emanaldia, «aspertu arte».

Etzidamu arte, baieztatzeko

200 goizuetar dira guztira, 65 urtetik goitikoak; eta gonbidapen bana jaso dute etxean. Joateko asmoa dutenek, datorren asteartera arte dute epea, baieztatzeko: bueltan entregatu behar dute gutuna, baieztapenarekin, Umore Onan edo elkarreko buzoian. ||

■ ASTIGARRAGA-HERNANI PELOTA

Brontzea kolkoratu du Amaia Irazustabarrenak, eta finala jokatu du gaur Oier Gurutzealdeak

Frantziaren kontra ariko da astigartarra, Munduko Kopako errearen bila, goizeko 11:30etan. Hernaniarrak, berriz, hirugarren postua eskuratu du, atzo Argentinari azkeneko tantoan irabazita.

DOMINAREKIN bueltatuko dira, ziur, bailarako bi ordezkariak, trinketeko Munduko Kopatik. Finalean izango da gaur Oier Gurutzealde astigartarra, Eneko Maiz villabonarrarekin, eta urrezko domina bilatuko dute, eskuz banaka, Frantziako selekzioaren kontra. Eta Amaia Irazustabarrenak, atzo eskuratu zuen brontzezko domina: paleta gomaz binaka, atzo hirugarren posturako lehia irabazi zuen, Argentinaren kontra, berak jokatu ez zuen arren.

Bi lapurtar kontrario, gaur Gaurko finalean, bi lapurtar izango dituzte aurrez aurre, Gurutzealde eta Maizek: Battitta Ducassou itsasuarra, eta Mathieu Ospital baionarra.

Goizeko 11:30etan izango da

Desenpatearen azkeneko tantoan lortu zuen brontzezko domina atzo, Amaia Irazustabarrenak.

hori, eta lehia gogorra espero da. Gurutzealde eta Maizek, zein Ducassouk eta Ospitalek, jokatuak partidu guztiak irabazi dituzte. Ligaxkan, multzo bakoitzeko lider bukatu zuten, eta semifinalean, Kuba menderatu zuen Ospitalek, eta Mexiko Maizek: 15-6, 12-15 eta 10-4 nagusitu zitzaion villabonarra, David Alvarazi, desenpatean.

Ligaxkako lau partiduetatik, bi partidu jokatu ditu Gurutzealdeak, eta biak irabazi: 15-1 eta 15-3 Argentinari, eta 15-2 eta 15-4

Txileri. Erraz irabazi zituen bere bi partiduak, Maizek ere: 15-2 eta 15-2 nagusitu zen, hala Kubaren kontra, nola Estatu Batuakena kontra.

Brontzea azkenean, Amaia Irazustabarrenak

Atzo zeukan partidu erabakigarria, aldiz, Amaia Irazustabarrenak. Frantziaren kontra semifinala galdu ondoren, brontzea lortzeko partidua izan zuten atzo, Argentinaren kontra. Ez zuen jokatu hernaniarrak, baina garaipen ederra lortu zuten Ane Ibañez eta Nagore Martin selekziokideek, desenpateko azkeneko tantoan: 15-6, 11-15 eta 10-9.

Hain justu, argentinarren kontra zaildu zitzaizen txapelketa, ligaxkan. Uruguay men-



Oier Gurutzealde (sarearen atzean, horiz jantzita), semifinaleko partidua adi-adi jarraitzen. David Alvarez mexikarra menderatu zuen, Eneko Maiz villabonarrak.

deratzea lortu zuten aurrena, Irazustabarrenak eta Nagore Martinek (10-15, 15-12 eta 10-9); eta Estatu Batuakena erraz irabazi gero, beste bi selekziokideek (15-0 eta 15-0). Baina ligaxkako azkeneko partiduan, 7-15 eta 7-15

galdu zuten Argentinaren kontra, Irazustabarrenak eta Martinek; eta horrekin, Frantzia favoritoa zuten kontrario, semifinalean: 15-7 eta 15-11 galdu zuten hernaniarrak, Haizea Zamorarekin. Atzo eman zioten buelta. ||

■ HERNANI ERRUGBIA

Burgos azken sailkatua hartuko dute trikoloreek gaur, Landaren

Hernaniarrek denboraldiko bigarren patidua jokatu dute etxean, arratsaldeko 17:00etan, eta galtzailea azken postuan geratu da.

BOST jardunalditan etxetik kanpo lau partidu jokatu ondoren, Landaren izango dute zita gaur Hernaniko Errugbi Elkarteko mutilek. Liga hasi zenetik, bigarren partidua izango dute etxeko zelaietan; arratsaldeko 17:00etan hasita izango da, Burgosen kontra.

Sailkapeneko azkenaren eta azkenurrekoaren arteko norgehiagoka izango da; parez pareko lehia, beraz; eta galtzailea, zuloan geratu da. Hori horrela, orain arteko zitarik garrantzitsuenak izango da gaurkoa, hernaniarrentzat.

Burgosek kalitate haundiko taldea osatu du

Hernanik bi puntu ditu sailkapenean eta Burgosek berriz bakarra. Aurrekoak, Bathcok, zortzi ditu. Gutxi espero zuten Burgos hain atzean ikustea tal-



Aurrez aurre ariko dira gaur, Burgos eta Hernani, Landaren.

de sendoa duelako paper gainean. Postu horrek ez du islatzen haren plantillaren kalitatea.

Hernanik asko dauka irabazteko; izan ere, une honetan liga erdibituta dago, bi zatitan. Aurreneko sei taldeek abantaila argia ateratzen diete azkeneko sei: seigarrenak 17 puntu ditu, eta zapigarrenak, berriz, hamai-

ka. Hortaz, gaurkoa irabaztea garrantzitsua da, sailkapenean gora begira jarri nahi badu.

Egoera ikusita, trikolorentzat ezinbestekoa izango da zaleen indarra, beste behin. Gainera kontuan hartu behar da, urtarrilera bitarte Landaren jokatu ditzutela partidu gehienak, hernaniarrek. ||

■ GOIZUETA MENDI LASTERKETAK

Hodei Lujanbio nagusi, Urdazubin

Kontrabandisten Lasterketako sailkapen nagusia irabazi zuen, bi proba jokatu.

PODIUMETIK podiumera dabil Hodei Lujanbio goizuetarra, mendi lasterketan; eta kokarik altuenera igo zen aurreko igandean, Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketan, sailkapen nagusia irabazita.

Izan ere, bi probatara jokatu zen lasterketa. Larunbat gauean izan zen aurrenekoa, 9,5 kilometrokoa, 500 metroko desnibel positiboarekin. Jokin Arretxea bertizaranarra nagusitu zen (52:22), baina oso gertu iritsi zen Lujanbio, 33 segundura (52:55). Arantzako Asier Apezetxea izan zen hirugarren (53:13).

Ordu gutxira abiatu zen bigarren proba, luzeagoa: 22 kilometro eta 1.200 metro positiboko ibilbidea osatu behar izan zuten larunbat goizean. Eta horretan ere, bigarren izan zen Lujanbio (1:55:26),



Hodei Lujanbio pozik, Urdazubin, kontrabandista lanak bukatuta.

Barañaingo Ander Ericeren atzetik (1:53:42). Haren herrikide bat, Aritz Arteta, izan zen hirugarren (2:00:33).

Bi probetan egindako lan bikainak, garaipena eman zion goizuetarrari, sailkapen nagusian. Maria Loizu iruindarra nagusitu zen emakumezkoetan. ||

■ HERNANI-ASTIGARRAGA FUTBOLA



CD Hernaniko futboleko talde argazki erraldoia atera zuen atzo klubak.

Hernaniko jubenilek beheko postuetatik aldendu nahi dute, Vasconiaren aurka

Zubipen jokatuko du Nazional Ligako taldeak 16:30etan. Hernaniko neska eta mutil nagusiek eta Mundarroko talde nagusiak etxetik kanpo jokatuko dute asteburuan.

HERNANIKO Liga Nazionaleko jubenil taldeak partidu garrantzitsua jokatuko du gaur, 16:30etan, Zubipen Vasconiaren aurka. Hernaniarrek zazpi puntu dituzte zazpi partiduetan eta garaipenaren beharrea aurkitzen dira behealdeko postuetatik aldentzeko, 13garren baitaude sailka-

tuta. Gainera Zubipen asteburuan talde nagusiek jokatuko duten partidu bakarra izango da.

Euskal Ligako neskek Ses-taon jokatuko dute bihar, 17:00etatik aurrera, eta laugarren garaipenaren bila joango dira azkenaurrena sailkatua dagoen taldearen aur-

ka. Ohorezko erregional mailako taldea gertuago ariko da gaur, Irungo Galen, 16:00etan Real Unionen kontra. Hernaniarrak bosgarren daude sailkatuta, eta irundarrak 14garren postuan daude.

Klubak atzo taldeko argazkia atera zuen Biteri aurrean. Bertan bildu ziren ehundaka

jokalari, talde eta maila guztietakoak.

Oiartzun-Mundarro, gaur arratsaldean
Mundarrok ere kanpoan jokatuko du, nahiz eta etxetik gertu izango den. Oiartzun dute aurkari Karla Lekuonan, gaur, 16:15etatik aurrera. ■

■ HERNANI-ASTIGARRAGA ESKUBALOIA

Mundarro eta Hernanik etxean jokatuko dute

Eibarren kontra ariko dira Astigarragako neskek, gaur 18:00etan; eta ordu berean Zarautzen aurka, Hernaniko mutilak.

ASTIGARRAGAKO eta Hernaniko eskubaloi talde nagusiak gaur, 18:00etan jokatuko dute etxean, Eibar eta Zarautzen kontra. Mundarroko neska jubenilek bi partidu irabazi dituzte eta bakarra galdu eta gaur lider eibartarrak izango dituzte aurkari. Partidu zaila astigartarrentzat. Talde berean jokatzen dute Hernaniko neskek, baina jardunaldi honetan atsedena dute.

Ez da mutilen kasua. Hernaniko talde jubenilak Zarautz B-ren aurka jokatuko du kiroldegian. Hernanik lehe-

nengo garaipena nahi du lortu garaipen bakarra duen talde baten kontra.

Kadete neska-mutilak eta infantil mutilak ere kiroldegian

Kiroldegian beste hiru partidu jokatuko dira asteburuan. Kadete mutilen taldeetako batek Elgoibar hartuko du gaur, 16:00etan. Kadete neskek, bihar 10:15etan, Leizaran dute aurkari eta infantil mutilen taldeetako batek gaur, 16:00etan, Eibarren aurka jokatuko dute. Beste talde guztiek kanpoan ariko dira. ■

■ HERNANI XAKEA

26 jokalarari ariko dira, Hernaniko txapelketan

Bigarren jardunaldia jokatuko da bihar, 16:00etan Kixkalen hamabi partidarekin.

HERNANIKO Xake Txapelketan aurten 26 jokalaririk eman dute izena eta bihar, 16:00etatik aurrera, bigarren jardunaldia jokatuko dute horietako 24 xake jokalariek hamabi partidetan. Jose Mari Berrotaranek eta Joseba Goikoetxeak atsedena dute asteburu honetan eta beraz 0,5 puntu gehituko zaizkie sailkapenean. Gogoratu garailek puntu bana lortzen dutela eta galtzaileek zero.

Aste honetako partidak, ondorengoak dira: Makarov-Edu Sanz; Martiarena-Xerpa; Iturralde-Udo Esnaola; Ibon Ramos-Erdozio; Oxan-Beñat

Murua; Mikel Zubia-Ekaitz Devesa; JR Altuna-Iñaki Arrieta; Peru Dominguez-Beñat Devessa; Javier Burgos-Jon Sagarna; Alain-Eli Agirre; Maitane Otaolea-Mertxe Egizurain; eta Ekain-Jose Gonzalez.

Pasa den astean hasi zen
Aurreneko jardunaldian, berriaz, hauek izan ziren emaitzak: Edu Sanzek Javier Burgosi; Martiarenak Eli Agirreri; Udo Esnaolak Maitane Otaoleari; Makarovek Jose Gonzalez; Xerpak Alaini; Iturralde Jon Sagarnari; Joseba Goikoetxeak Ekaini; eta Ibon Ramos-Mertxe Egizuraini. ■

■ WATERPOLOA

Getxon hasiko du Liga gaur Hernanik

Hernani taldeko senior mutilek Euskal Liga txapelketa, 2garren mailan etxetik kanpo hasiko dute gaur. Getxo B-ren aurka neurtuko dira Fudurako igerilekuan 20:15etan hasita. ■

■ IGERIKETA

Alebin Liga ere Hernanin hasiko da

Igeriketa denboraldia gaur hasiko da Gipuzkoako igerileku desberdinetan maila desberdinetan. Honela, Hernaniko igerilekuan Gipuzkoako Alebin Ligako lehenengo jardunaldia jokatuko da, 16:00etan hasita. Horregatik, igerilekua itxita egongo da arratsaldean. Infantil, junior eta absolutuek ere gaur Neguko Ligari hasiera emango diote eta Hernaniko taldea eta beste taldeetan dauden hernaniarrek Lasarten egingo dute igeri. ■

■ ZIKLOTURISTAK

Altzako Gurea Elkartera, irteera

Zikuñako Ama elkarteko zikloturistek bihar irteera Altzara egingo dute, Gurea Elkartera hain zuzen. Goizeko 09:00etan jarri dute elkarteko ordua Zinkoenean, Altzara joateko. ■

■ ERREMONTA

Barrenetxea sasoi betean, gaur Galarretan

Barrenetxeak bart gauean Azpeitiko Tomeoko finala jokatu du eta atsedenerako denborarik gabe gaur hiru egunetan hirugarren partidua jokatuko du. Etxarriekin batera ariko da, Seguro eta Endikaren aurka. Partidu onen konposaketak erakusten du Barrenetxeak hartu duen maila. Txapelkun geratu denetik ia partidu guztiak irabazi ditu eta denetan izugarritzko maila erakusten ari da. ■

■ BOLEIBOLA

Nagusiek, kanpoan eta infantilek, etxean

Hernaniko sei taldeetatik bostek jokatuko dute asteburu honetan. Euskal Ligako mutilek Gasteizera egingo dute bidaia Palankideren aurka jokatuko. Neskek Urretxun ariko dira, kadete neskek Pio Barojan Donostian eta etxean infantilen bi taldeek jokatuko dute. Gaur 13:00etan kiroldegian Hernani 1 eta Hernani 2 taldeek Summa 1 eta Fortuna Txikiren kontra jokatuko dute. ■

■ ASTIGARRAGA-HERNANI SASKIBALOA

Etxetik kanpo ariko dira gaur, lehenengo mailako bi taldeak

Oiartzunen jokatuko dute Hernaniko mutilek, eta Donosti Dolphinsen kantxa Mundarrokoek. Arratsaldeko 16:00etan izango dira biak.

SEIGARREN jardunaldiko partiduak jokatuko dute gaur, mutilen Gipuzkoako lehenengo mailako bi taldeek, etxetik kanpo.

Oiartzunen jokatuko du Hernanik, arratsaldeko 16:00etan, Elorsoro kiroldegian. Oiartzun-eko Saskilagunak taldea izango dute aurrean, eta hasiera onari segida eman nahi diote herna-

niarrek: hiru garaipenekin, zazpigarren daude, baina garaipen bakarrera dute liderra. Oiartzur-arak, bi garaipenekin daude.

Mundarro, berriz, Donostian ariko da ordu berean, arratsaldeko 16:00etan. Donosti Dolphins taldearen kantxan jokatu du, Benta Berrin; eta partidu zaila daukate astigarrak: bost par-

tiduetatik lau irabazi dituzte donostiarrek, eta laugarren daude, liderrarekin berdinduta. Mundarro, berriz, hasiera zailari buelta eman ezinik dabil, eta partidu bakarra irabazi du.

Mundarroko bigarren mailako neskek, aldiz, atzo iluntzean jokatu zuten, Astigarragako kiroldegian, Tecnunen kontra. ■

■ HERNANI IPAR MARTXA

Zazpi hernaniar gaur, Miramongo proban

Gipuzkoako Txapelketa eta Espainiako Kopako proba izango da, 16:30etan.

BIGARRENEZ jokatuko da Donostiako Miramon parkean, gaur arratsaldean, ipar martxa proba. 16:30etan abiatuko dira partehartzaileak, 11 kilometroko ibilbidea osatzeko.

Gaurko proban, Gipuzkoako Txapelketa izango da jokoan, eta Espainiako Koparako ere, puntuagarria izango da:

Kopako azkeneko proba da. Eta aurten ere, izango da hernaniarrik, partehartzaileen artean. Zazpi herritar daude izena emanda: Marijo Villalba, Arantza Errazkin, Carmen Ochandorena, David Guirado, Arantxa Astigarraga, Agustin Urretabizkaia eta Visi Madina. ■

ERRUGBIA

MUT. OHOREZKO MAILA	Hernani-Burgos	Landaren	Gaur 17:00
NSK. EUSKAL LIGA	Durango-Landarbaso	Arripausetan	Gaur 16:00
MUT. 23 URTEZ AZPIKOKAK	Hernani-Burgos	Landaren	Gaur 15:00
KADETEAK (SUB18)	Rioja-Hernani Atletiko	Pradovlejon	Gaur 13:30
KADETEAK (SUB16)	Rioja-Hernani Atletiko	Pradovlejon	Gaur 12:15

FUTBOLA

NSK. EUSKAL LIGA	Sestao River-Hernani	Galardon	Bihar 17:00
MUT. OHOREZKO ERREG.	Real Union-Hernani	Galen	Gaur 16:00
NSK. OHOREZKO ERREG.	Hernani-Lagun Onak	Zubipen	Bihar 16:30
MUT. ERREG. FREE	Oiartzun-Mundarro	Karla Lekuonan	Gaur 16:15
MUT. ERREG. FREE	Hernani-Kostkas	Zubipen	Gaur 18:30
MUT. ERREG. 1GO MAILA	Mundarro-Lengokoak	Zakumendegin	Gaur 17:45
MUT. SUB. LIGA NAZORALA	Hernani-Vasconia	Zubipen	Gaur 16:30
MUT. SUB. OHOR. MAILA	Mundarro-Tribuerpe	Zakumendegin	Gaur 15:30
MUT. SUB. OHOR. MAILA	Vasconia-Hernani	Pulon	Bihar 16:00
MUT. SUB. 1GO MAILA	Oveta-Mundarro	Beraunen	Gaur 16:00
MUT. SUB. 1GO MAILA	Ostadar-Hernani	Michelinen	Gaur 12:00
NSK. KAD. OHOR. MAILA	Inbaundi-Hernani	Cesar Beniton	Gaur 11:30
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Real Union-Mundarro	Galen	Bihar 12:00
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Hernani-Hondambia	Zubipen	Bihar 12:00
NSK. KAD. 1GO MAILA	Inbaundi-Mundarro	Pulon	Gaur 13:15
MUT. KAD. 1GO MAILA	Mundarro-Sporting Herrera	Zakumendegin	Gaur 09:00
MUT. KAD. 1GO MAILA	Hernani-Billabona	Zubipen	Bihar 18:30
NSK. INF. OHOR. MAILA	Hernani-Touring	Zubipen	Gaur 10:00
MUT. INF. OHOR. MAILA	Mundarro-Hondambia	Zakumendegin	Gaur 13:00
MUT. INF. OHOR. MAILA	Antiguoko-Hernani	Berion	Bihar 12:00
MUT. INF. 1GO MAILA	Mundarro-Sanse	Zakumendegin	Bihar 11:15
MUT. INF. 1GO MAILA	Hernani-Inturre	Zubipen	Bihar 10:00
MUT. INF. TOKAK	Mundarro-Igeltegi	Zakumendegin	Gaur 11:00
MUT. INF. TOKAK	Hernani-Umieta	Zubipen	Gaur 12:00
MUT. ALEB. A	Ostadar-Mundarro	Rezolan	Bihar 09:30

MUT. ALEB. A	Añorga-Hernani	Rezolan	Bihar 09:30
MUT. ALEB. 1GO URTEA	Mundarro-Alleru	Zakumendegin	Bihar 10:00

SASKIBALOA

MUT. GIPUZK. 1GO MAILA	Oiartzun-Hernani	Elsonon	Gaur 16:00
MUT. GIPUZK. 1GO MAILA	Donosti Dolphins-Mundarro	Benta Berrin	Gaur 16:00
MUT. GIPUZK. 3. MAILA	Hernani-BKL	Kiroldegian	Bihar 12:00
MUT. GIPUZK. 3. MAILA	Errobide Irus-Mundarro	Asken Portun	Gaur 20:00
NSK. JUBENILAK	Askatuak-Mundarro	Paco Yoldin	Gaur 18:00
MUT. JUBENILAK	Iraurgi-Hernani	Azkoitan	Gaur 16:00
MUT. KADETEAK	Take-Hernani	Usabalen	Gaur 10:30
MUT. KADETEAK	Mundarro 1-Antigua Luberi B	Kiroldegian	Gaur 11:30
MUT. KADETEAK	Easo-Mundarro 2	Loiolan	Gaur 16:00
MUT. INFANTILAK	Askatuak Gomi-Hernani	Paco Yoldin	Bihar 12:00
MUT. INFANTILAK	Errobide Irus-Mundarro	Asken Portun	Bihar 10:00

BOLEIBOLA

MUT. EUSKADIKO LIGA	Udapa-Hernani	Gasteluzen	Gaur 19:00
NSK. KADETEAK	Fortuna 2-Hernani 2	Pto Barojan	Gaur 12:00
NSK. INFANTILAK	Hernani 1-Summa Aldapeta	Kiroldegian	Gaur 13:00
NSK. INFANTILAK	Hernani 2-Fortuna Txiki	Kiroldegian	Gaur 13:00

ESKUBALOA

NSK. JUBENILAK	Mundarro-Eibar	Kiroldegian	Gaur 18:00
NSK. JUBENILAK	Laubide-Hernani	Legazpin	Bihar 10:30
MUT. JUBENILAK	Hernani-Amenabar B	Kiroldegian	Gaur 18:00
NSK. KADETEAK	Hernani-Leizaran Horia	Kiroldegian	Bihar 10:15
MUT. KADETEAK	Urola-Hernani	Zumaragan	Gaur 16:15
MUT. KADETEAK	Hernani-Elgoibar	Kiroldegian	Gaur 16:00
NSK. INFANTILAK	Egia 1-Hernani	Paco Yoldin	Bihar 10:00
MUT. INFANTILAK	Ereintza-Hernani	Pasalan	Gaur 13:00
MUT. INFANTILAK	Hernani-Eibar	Kiroldegian	Gaur 13:00

PALA

NSK. NAG. 1GO MAILA	Su-Berri 2/Arrieta-Halzi	Anoetan	Gaur 17:00
NSK. NAG. 2. MAILA	Ataun/Araitegi-Gutierrez	Ataunen	Gaur 17:00

NSK. JUBENILAK	Barrenekoa-Iriondo/Kerejeta-Macior	Hernanin	Bihar 11:00
NSK. JUBENILAK	Miner-Zugasti-Barrenekoa/Inturre 3	Hernanin	Bihar 11:30

ESKU PELOTA

MUT. NAG. 1GO MAILA	Eple/Urkizu-Labaka	Erreterian	Gaur 10:00
MUT. NAGUSIAK 3. MAILA	Gazteku/Arizmendi-Altuna	Andoainen	Gaur 16:30
MUT. SUB. 1GO MAILA	Lizeaga-Lizeaga/Murumendi	Txomilenen	Bihar 10:30
MUT. KADETEAK 2. MAILA	Tolosa/Garaizar-Alegria	Tolosan	Gaur 11:30
MUT. INFANTILAK	Eñaut Otaño/Zumaia	Hernanin	Gaur 15:00
MUT. INFANTILAK	Oier Arpeitia/Zazpi Iturri	Hernanin	Gaur 15:20
MUT. INFANTILAK	Unax Pascual/Behar Zana	Hernanin	Gaur 15:40
MUT. INFANTILAK	Jon Urrutia/Tolosa	Hernanin	Gaur 16:00
MUT. INFANTILAK	Ianitz Gorroategi/Gazteku	Hernanin	Bihar 12:00
MUT. INFANTILAK	Urko Moral/Aide Zaharra	Hernanin	Bihar 12:30
MUT. INFANTILAK	Sagardia/Eizegi	Elizondan	Gaur 10:00
MUT. ALEBINAK	Manex Alberdi/Behar Zana	Hernanin	Gaur 16:20
MUT. ALEBINAK	Joseba Arretxe/Kuku	Hernanin	Gaur 16:40
MUT. ALEBINAK	Oinatz Gaskon/Behar Zana	Hernanin	Gaur 17:00
MUT. ALEBINAK	Xabier Gomez/Txapagain	Hernanin	Gaur 17:20
JOSETXO EZKURRA TXAR	Garaikoebea-Aiur Eizazu/Dima	Oronozen	Bihar 12:30
JOSETXO EZKURRA TXAR	Unax Uitzu-Labaka/Oberena	Elizondan	Bihar 10:30
JOSETXO EZKURRA TXAR	Apaolaza-Insausti II/Baraialain	Elizondan	Gaur 17:00
JOSETXO EZKURRA TXAR	Oiartzabal-Mujika/Ultzama	Elizondan	Bihar 10:00
JOSETXO EZKURRA TXAR	Macior-Oses/Añorga	Golzuetan	Bihar 11:00
EGIARD TXAR	Arrieta-Lizeaga/Urbieta-Irazustabarena	Egian	Bihar 12:00

ERREMONTEA

1GO PARTIDUA	Zubiri/Garces	Galarretan	Gaur 16:00
2. PARTIDUA	Etxarri-Barrenekoa IV/Segarola-Endika	Galarretan	Gaur 16:00
3. PARTIDUA	Urriza-Arpiroz/Uterga-Etxeberria III	Galarretan	Gaur 16:00
4. PARTIDUA	Beñat-Larañaga/Goikoetxea V-Labaka	Galarretan	Gaur 16:00

TXIRRINDULARITZA

ZKURRUKO AMA	Altzako elkartera (22 kilometro)	Zinkoeneatik	Bihar 09:00
--------------	----------------------------------	--------------	-------------

EGURALDIA GAUR Eguraldi egonkor, lehor eta eguzkitsuak jarraipena izango du larunbatean. Berrito ere zerua laino gutbirekin edo oskarbi egongo da, nahiz eta goizeko lehen orduetan lainoguneak sortu. **Min.12° / Max.24°**

BIHAR Ildo beretik hasiko da, egusentzi argia izango da eta behe-lainoa sortuko da zenbait txokotan. Goizean zerua oskarbi eta eguerditik aurrera erdi-mailako lainoak sartuko dira. **Min.13° / Max.22°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** Gaez: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



TELESAILETAN ADI(K)TUA

‘Quis custodiet ipsos custodes?’: Nork zaintzen ditu Zaindariak?



AITOR CARACCILO

datorkigun berriz ere HBO katearen eskutik, nire produktore eta gidoilari gustokoena, eta zer nolako seriea, gainera. Izena, *Watchmen*.

‘Watchmen’, orain telesail moduan

Seguruenik askok, 2009 Zack Snyder zuzendariak eginiko pelikula izango duzue buruan. Hala ere, honek oinarritzat zuten Alan Moore eta Dave Gibbons 80 hamarkadako nobela grafiko famatu eta multipremiatua izan dugu denen abiapuntu. Bertan, 1985 urtean *zaindari* modura dabilen heroi enmaskaratu batzuen istorioa kontatzen zen. Ez naiz artikulu honetan funtsa azaltzera sartuko, komikizaleak garenontzako edota hauek ezagutzen ditugunentzako, beharrik ez dagoelako eta, era berean, telesail honetan kontatuko dena ikusi eta ezagutzeko, ez delako nahitaezkoa hauek denak jakitea.

Mundu berean kokatzen den telesaila dugu, baina modu independentean jorratzen den kontakizuna izango da (aurrekariak ezagutzeak hala ere, informazio gehiago ere eman du, eta ikusi ditzakegun hainbat metaerreferentzia eta komikieko omenaldiak uneoro izango ditugu).

Aste honetako astelehenean

Astelehenean estreinatu zen HBOn.

estreinatu zuen gurean *Streaming* zerbitzuaren bidez HBOk, eta kapitulu bakarrak ikusteko aukera izan bada ere, oso modu indartsuan eta batera kontzesiorik egin gabe sartuko gara mundu berri honetan.

Intrigak eta konspirazioak

Duda asko sortuaraziko dizkigun kapitulua, iritsi berri garen toki eta garaiko (gaur egun kokatua, komikiaren gertakariak eta 30 urtetara) idiosinkrasia eta egoeraren zantzu txiki bat emango diguna. Gure baitan hainbat galdera sortuko ditu, eta informazio minimoa eskainiko digu.

Ez dakizue benetan, nola gustazen zaizkidan horrela uzten nauten programa berriek. ikusmina piztu zaizue jada? Ni aspaldi nenbilen honen esperoan! Eta benetan esaten dizuet lehenengo atalak bete duela bere eginbeharra, hurrengo asteetan ni berriz pantailara itsatsita geratzeko. Intrigak eta konspirazioak, polizi eta milizien arteko guda, gertakari arraroak nonahi... Tik-tok, tik-tok (ikusi eta jakingo duzue zertaz ari naizen). ||



‘Watchmen’ telesaila estreinatu zen astelehenean.



IRAGARKI MERKEAK

Vanessa Soodeen: Coaching-psikologia, psikoterapia-Gestalt, Mindfulness, bakarkako terapia, bikote-terapia... Deitu: 666 197 211 vsoodeen@gmail.com

Gutxi erabilitako konpresore trifasikoa salgai. 500 €. Deitu: 688 651 438

Nibiru estetika zentroan estetizista bat behar dugu. Epe luzerako lana. Esperientzia baloratuko da. CV-a bidali: nibiru.edergintza@gmail.com

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

